

OSASUN EREDUAREN OINARRIAK

2024-11-11

SARRERA

Osasun eta gaixotasun kontzeptuak aldatuz joan dira historian zehar. Osasun-gaixotasun eredu tradizionalaren arabera osasuna gorputzaren, buruaren, ingurunearen eta bizi-ohituren arteko interakzio dinamikoen ondorio bat zen. Osasunaren eredu integratu eta orekatu bat zuten oinarritzat non adimena eta gorputz fisikoa ez ziren bereizten, sistema bakar baten atalak ziren.

XVIII. mendean zehar, eredu tradizionalaren aldaketaren hasiera suposatu zuten teoria ezberdinak sortzen hasi ziren. Alde batetik, Sydenham, zeinuen eta sintomen ezaugarri bereizgarrien araberako gaixotasunen sailkapenarekin, eta, bestetik, Morgagni, gaixotasun espezifiko bakoitzari lotutako alterazio anatomikoen deskribapenarekin.

XIX. mendearen bigarren erditik aurrera berriz, bakterien isolamenduekin erabat aldatu zen medikuntzaren pentsamoldea, Pasteur eta Koch-ekin. Gaixotasunaren kontzeptua behin betiko ezarri zen prozesu fisiologiko unibertsal gisa, eta, beraz, berdina paziente guztiengan.

Paradigma berri baten aurrean gaude, paradigma infekzioso. Paradigma horrek aldatu egiten du osasunaren eta gaixotasunaren kontzeptua, eta ideia hau sortzen da: gaixotasun orok etiologia bakarra du, eta tratamendu espezifiko bat, zeinak zuzenean eragiten baitu kausen mekanismoan, parametro biologikoak aldatu gabe. XX. mendean zehar paradigma hau betikotu egiten da antibiotikoen aurkikuntzarekin, txertoen garapenarekin, insulinarekin eta abarrekin. Eredu biomediko erredukzionistaren gorakada da.

Bigarren Mundu Gerraren ondorengo hiru hamarkadak biomedikuntzaren urrezko arotzat hartzen dira. Garai honetan finkatzen dira ospitale handiekin lotutako espezialitate fokalak, lehen osasun-sistemen sorrera, ikerketa biomedikoa finantzatzeko programa nazionalak bultzatzea, bereziki Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan. Osasun publikoan eredu erredukzionista ezartzen hasten da, zeinak prebentzioaren ikuspuntua azaleratzen duen eta arrisku faktoreen paradigma onartzen da.

Paradigma erredukzionista nagusi den garai honetan, hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, Alma-Atako Biltzarra egin zen. Biltzar honetan lehen mailako arreta sortzeko oinarriak ezarri ziren. Hamarkada honetan ere argitaratzen da Lalonde txostena, osasunaren gizarte-determinatzaileen garrantzia ezartzen duena. Paradigma berri bat sortzen da, XX. mendearen amaieran Dahigren eta Whiteheaden ereduak barneratzen duten determinatzaile sozialen paradigma. Eredu holistikoa da, determinatzaileetan jartzen du fokua, osasunean jartzen du fokua, eta osasuna politika guztietan ezartzearen garrantzian.

Baina fokua osasunaren determinatzaileetan jartzen duen eredu holistiko horrekin batera, politika neoliberalak sortzen dira AEBetan eta Erresuma Batuan Reagan eta Thatcherrekin, testuingurua eta paradigma aldatzen dutenak. Testuinguru politiko horrek biomedikuntza bultzatzen du, osasuna norbanakoan oinarritzen da eta ez kolektiboan, eta gaixotasunaren jatorria kausa biologikoetan oinarritzen dute bitartekari sozial ekonomiko eta ingurumenekoak baztertzen direlarik. Politika neoliberalak, ezagutza zientifikoan izandako aurrerapenekin batera, sektorearen industrializazioa eta osasunaren medikalizazioa eta merkantilizazioa bultzatzen dute. XXI. mendean berriz Osasun Munduko Erakundeak estrategia berri bat bultzatzen du, Osasun Bakarra “One Health” deiturikoa, zeinaren planteamenduak pertsonen,

animalien eta planetaren osasuna elkar eragiten dutela eta elkarren menpeko direnaren ebidentzia garatzen duen.

DEFINIZIOA

Osasunaren kontzeptua dinamikoa eta aldakorra da momentu historikoen arabera, eta haren edukia aldatu egiten da hura formulatzen eta/edo onartzen duen komunitatearen baldintza historiko, kultural eta sozialen arabera (DE MIGUEL, 1985). OME sortu zenean, 1948an, osasuna ongizate fisiko, mental eta sozial gisa definitzen zen, eta ez gaixotasun edo elbarritasunik ez izatea soilik. Lehen definizio horren ondoren, eta Osasuna guztientzat 2000 urtean estrategiaren barruan, OME-k osasunaren kontzeptuan bizitza sozial eta ekonomikoki produktiboa garatzeko gaitasuna sartzen du, baina definizioa bera aldatu gabe. Esan behar da, hainbat agentzia, elkarte eta batzordek beste definizio batzuk proposatu dituztela, beste kontzeptu batzuk jaso eta OMEren definizioan sartutako kontzeptuak baztertzeko. Aipamen berezia merezi du Jordi Gol i Gurinaren definizioak, 1976an Perpignaneko ospatutako “X Congrès de Metges i Biòlegs de Llengua Catalana” delakoaren testuinguruan sortutakoak: “Osasuna da bizitzeko modu autonomoa, solidarioa eta gozagarria”. Eta ikuspegi etikoa kontuan hartuta, Marije Goikoetxeak dioen bezala, osasuna “bizitzeko modu autonomo, solidario eta gozagarria da, bizirik irautea baino zerbait gehiago da, ez gaixotzea baino zerbait gehiago; osasuna proiektu pertsonal eta sozial bat garatzeko gaitasuna izatea da, inguruan ditugun pertsonekin solidarioak izateko, maitatzeko, ez abandonatzeko gaitasuna izatea. Bestiak eta norbera zaintzeko gaitasuna da”.

GOBERNU ONA

Osasunaren gobernantza edo gobernu ona osasuna giza eskubide gisa eta justizia sozialaren kontu bat bezala hartzen duena da. Osasuna baldintzatzen duten faktoreen hurrenkerari erreparatuz, erakundeen eginkizunaz harago doan gobernu-eredu bat da, hainbat eragilerekin (erakundeak, herritarrak eta agente sozialak eta ekonomikoak) elkarlanean eta elkar koordinaturik aritzen dena koherentziarako politikak garatzeko, eta osasunaren determinatzaile sozialak hobetzera eta osasun arloko desberdintasunak murriztera zuzendua dena. Osasunaren gobernantza onak beste printzipio batzuk ere biltzen ditu, hala nola parte-hartze soziala, gardentasuna, trazabilitatea eta gobernatzean burututako jardueren gaineko kontu ematea [MORTERUEL, M. Giné, A. (2019)]

MISIOA

Osasun Sailaren egin beharra norbanakoentzat eta gizartearentzat osasuna sortzea, zaintzea eta sustatzea da. Herritarra erdigunean kokatuz eta sistema egokituz, pertsona bakoitzak dituen zaintza beharrak planifikatu eta bermatzeko.

BISIOA

Osasun asistentzia eskaintzetik haratago, osasun determinanteetatik hasita, Osasun Bakarra “One Health” markoan lan egingo duen herritarrekin eta profesionalekin eraikitako Osasun Sistema Publikoa.

BALOREAK

Printzipioak eta baloreak estuki erlazionatuta dauden kontzeptuak dira. Printzipioak gure erabaki eta ekintzak gidatzen dituzten arauak dira. Baloreak berriz, gure bizitzan garrantzitsuak diren sinesmen eta konbikzioak dira, zeinetan barne bilduta dauden gure erabaki eta ekintzak gidatzen dituzten arauak. Horregatik, printzipioetara mugatu beharrean egokiago ikusten dugu baloreen eremua zehaztea, Osasun Sistema Publikoko erabaki eta ekinbidean kontutan hartu beharrekoak.

Osasun Saileko eta Osasun Sistema Publikoko jarduketak, prestazioak eta zerbitzuak balore hauetan oinarrituko dira:

- a) **Unibertsaltasuna**, botere publikoek herritar guztiei bermatu behar dieten eskubide indibidual eta sozial gisa.
- b) **Ekitatea**, osasunean eta pertsonen edo kolektiboen arteko osasun-desparekotasunak gutxituko dituzten osasun publikoko politikak eta esku-hartzeak garatzea. Osasunaren determinatzaileei modu eraginkorrean helduta eta, bereziki, egoera ahulenean dauden kolektiboek begiratuta.
- c) **Autonomia**, herritarrek beraien osasunaren eta zaintzaren inguruan erabakiak modu informatuan hartzeko duten eskubidea
- d) **Irisgarritasuna**, direnak direla herritarren ezaugarriak (hizkuntza, kultura, maila sozio-ekonomikoa, funtzionalitatea) eta bizitokia osasun sistema publikora sarrera bermatzea.
- e) **Elkartasuna**, gizartearen konpromiso kolektibo gisa, herritar guztiei ahalik eta osasun- eta ongizate-mailarik handiena bermatzeko.

- f) **Justizia**, egoera sozial, ekonomiko, demografiko edo geografikoagatik, pertsona-taldeen artean desberdintasun saihegarri, bidegabe edo konpongarririk ez egotea.
- g) **Erantzukizun publikoa**, eskubide indibidualen berme eta babes gisa.
- h) **Integralitatea**, prestazioen eta zerbitzuen ikuskera integrala, integratua eta interseksionala.
- i) **Gardentasuna**, esku-hartze guztien ebaluazioa, gardentasuna, trazabilitatea eta kontu-ematea.
- j) **Parte-hartzea**, herritarrek politikak eta ekintzak formulatzen eta kudeatzen parte hartzea eta horretan lankidetzan eta erantzukidetasunez aritzea.
- k) **Talde lana**, eremu eta maila desberdinetan eta elkarren artean lana egitea.
- l) **Berrikuntza**, ikasteko gaitasuna eta gizartearekin batera eboluzionatzeko ahalmena duen erakundea eraikitzea.
- m) **Zuhurtzia**, erabakiak hartzerakoan jakituria erabiltzea. Esperientzian oinarrituz, egoerari buruzko beharrezko informazioa bilduz eta beharrezkoak ez diren arriskuak saihestuz.
- n) **Segurtasuna**, jarduerak eta zerbitzuak osasunaren aldetik duten segurtasuna egiaztatu ondoren gauzatuko dira, eta jakintza zientifiko fidagarri, gaurkotu, zorrotz eta kalitatekoetan oinarrituko dira.
- o) **Kalitatea**, formazioaren bidez gaitasuna areagotzea dakarren balorea.
- p) **Iraunkortasuna**, epe ertain eta luzerako osasun sistema publiko bideragarria bermatzeko baliabideen efizientzia ziurtatuz.

Euskal Herrian, 2024ko azaroak 11n

EH BILDU